

XEDAPENA, 2024KO MARTXOAREN 8 KOA, OSATEK SA-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA OPOSIZIO FASEKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, PUNTUAZIOAREN ARABERA, ERRADIOLOGIAKO MEDIKU ESPEZIALISTEN KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO OPOSIZIO LEHIAKETA BIDEZ OSATEKEN DESTINOA DUENA.

Osatekeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapen baten bidez, onartu egiten da plazak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautzen dira lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, Osatek SAn aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

Osatekeko zuzendari gerenteak 2022ko azaroaren 30ean emandako xedapenaren bidez, onartu egin ziren oposizio-lehiaketa bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, Osatek SAn destinoa duten erradiologiako mediku espezialisten kategorian.

Osatekeko zuzendari gerentearen 2024ko otsailaren 13ko xedapen bidez, onartu egin zen oposizio-faseko izangaien behin-behineko zerrenda, puntuazioaren arabera, lan-kontratu finkoko langile izateko, Osateken destinoa duten erradiologiako mediku espezialisten kategorian, oposizio-lehiaketa bidez.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, oposizio-faseko izangaien puntuazioaren arabera behin-behineko zerrenda egin ondoren, zuzendari gerenteak oposizio-faseko izangaien behin betiko zerrenda onartu du, puntuazioaren arabera.

Era berean, eta aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi bereziaren bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorren 11.2.2 oinarriarekin bat etorriz, merezimenduak alegatzeko epea irekitzen da.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

EDATZEN DUT

Lehenengoa: Oposizio-faseko izangaien behin betiko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera. Zerrenda hori xedapen honen eranskinean dago.

Bigarrena: Xedapen hau Osateken webgunean (www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: 10 egun balioduneko epea ematea izangaiari merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, Campo & Ochandiano enpresaren web-orriaren bidez (www.campo-ochandiano.com), helbide elektronikoaren bidez (op-ra6578osatek@campo-ochandiano.com) edo Osateken egoitzan (Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua). Bizkaia Plaza eraikina. 48011 Bilbao.



OSATEK

Data/fecha: 2024 MAR. 08

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

ZK / N°: 25/2024

1/1

Bilbon, 2024ko martxoaren 8an.

Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz